

**Philippe Haristoy apezaren homilia**  
**Arantzetako Ama Birjinaren beila Ainhoan 2025ko ekainaren 9an**

*Hs 3, 9-15.20. 86. Salmoa. Jn 19,25-34*

Amaren eta semearen arteko ongi etorri onaren gaia, biziko mementorik latzenean, semearen heriotzaren tenorean! Eta hor, badago lekuko baten esku-aldatze bat bezala. Hemendik aitzina, "horra zure semea" erran zion Jesusek bere amari, zure semea ez naiz ni bakarrik gurutze huntan oinazearen egurrari itzatuta dagoena, ez! Maite dudan hori eta zure ondoan dagoena da zure semea edo alaba. Seme hau, alaba hau, gutarik bakotxa da, gaur goizean Mendekoste astelehen huntan Arantzetako Ama Birjinaren beila hau bizitzera etorri girenak, eta herri huntako, Ainhoako herri huntako gizon eta emazteek eraiki, berritu eta zaindu kapera huntan aterpe bila etorri girenak: "Eta ordutik dizipuluak bere etxean hartu zuen".

Bai, Mariarekin beilari gira goiz huntan... eta aurten sekulan baino gehiago, esperantzaren beilari. Bai, Mendekosteko gure usaiako Beila Jubilarior urtearen erdi-erdian kokatzen da, oraidanik historikoa geldituko den urtea, Frantses eta Leon Aita Sainduen arteko misione esku-aldatze miressgarriarekin, are gehiago gure kristau fedearen muin-muinean, Pazkoz, gertatua! Eta egun huntan gogoetatzerat emana zaukun ebanjelioak, "Maria, Elizaren Amaren" omenezko mezaatik ateraiak, pazko misterioaren bihotzean murgiltzen gaitu, dena sortzen eta arra-sortzen den tokia izanik, "Eta gurutzitzatuaren sahetz zilatutik odola eta ura atera ziren", biziaren ura, gure bataioko ura!

Eta hortan datza gure fedearen paradoxa guzia. Edertu eta gozatu nahi den bizi hori, aldi berean, emana zaigu, eta, batzuetan, indar handien bidez irabazi behar dugu. Aspaldisko filmaren izenburuak zioen bezala: "Bizia ez da ibai luze lasai bat"! A, bai, eder eta zoragarriak dira bazterrak kasko huntarat heldu eta, denbora aldekoa eta ona baldin bada, eta gisa hortan ez daiteke Jainko Kreatzailea gorets baizik, oraintxe egin dugun bezala, "Laudato Si", begi-keinu ttipi bat eginez Frantses Aita Saindu zenari eta ekologia integralaren himnoari, bere aitasaindutza gure fededun mugetarik anitzez haratago markatu duenari. Baina zerumuga mugagabeari idekitze hau irabazten da, batzuentzat latza izan daitekeen igaite baten ondotik! Eta ororen buru, izanik turista, ibiltari edo beilari, kasko huntara heltzen denean, Kalbario hunekin buruz-buru aurkitzen da, bere buruarekin buruz-buru bezala... giroa doi bat freskatzen du, beste ingurumen bat nahiago genuke, bereziki deskodeatzeko gakoak izan ez baditugu, gure mendebaldeko gizarteetan, Frantzian eta baita gure Euskal Herri maitean ere, gero eta gehiago gertatzen den bezala !

*Tel est le sens de cette montée que nous avons vécu en méditant les Mystères Dououreux de notre Rosaire... car oui nous le savons, pour nous les croyants la Croix n'est pas le bout du chemin, la Croix, le Calvaire, le tombeau est cette brèche qui s'ouvre pour laisser passer la lumière naissante du jour et le grand soleil de midi. Combien viennent contempler ce miracle permanent offert par Dame Nature ici en haut, offert par le Christ en tout point de l'univers!*

*Oui, avec Marie nous sommes invités à être pèlerins de cette espérance et à en témoigner autour de nous. Marie modèle de foi pour nous. Dans la catéchèse qui accompagne celles et ceux qui en cette année se rendront à Lourdes voici quelques lignes sublimes qui nous relatent l'Espérance de Marie, non seulement dans les moments joyeux et heureux de sa vie, mais dans les moments les plus difficiles qu'une maman peut traverser... La crucifixion et la mort de Jésus ou l'espérance dans la douleur extrême, et le Cénacle, l'attente dans l'espérance..*

*« La présence de Marie au Calvaire, nous dit le père Nicola Ventriglia chapelain de Lourdes, nous révèle que l'espérance peut naître même dans la douleur la plus profonde. Aux côtés de son fils, Marie partage chaque instant de son agonie, affrontant une douleur que seule une mère peut comprendre. Sa souffrance est intense, mais son espérance est toute aussi forte, enracinée dans la promesse de la résurrection et la certitude que , malgré tout, l'amour de Dieu triomphera ; Marie ne fuit pas la*

*souffrance, elle ne la nie pas, elle l'accueille avec une foi profonde, sachant que la douleur du moment n'est pas le dernier mot. Son espérance est un acte de résistance spirituelle, la conviction que malgré la défaite apparente au Calvaire, la victoire de Jésus sur la mort est certaine. Dans un monde où la douleur semble souvent l'emporter, Marie nous apprend que l'espérance n'est pas seulement un vague désir, mais une certitude qui illumine même les nuits les plus sombres de notre existence ». Au demeurant le Pape Léon a peine élu n'a pas dit autre chose dans les temps troublés que sont les nôtres, lorsqu'il a lancé depuis la loggia : « Le mal ne l'emportera pas ».*

*« La présence de Marie au Cénacle, poursuit notre chapelain, représente une lumière qui nous guide dans la tempête... Le Cénacle devient ainsi le théâtre d'une espérance qui se nourrit de patience et de prière... Marie, la Mère de l'espérance, même dans la souffrance intérieure, a enduré dans la paix le samedi saint et nous apprend à regarder avec patience et persévérance ce que nous vivons dans le samedi de l'histoire, de notre histoire, quand beaucoup, même des chrétiens, sont tentés de cesser d'espérer en la vie, en la vie éternelle... l'espérance avec laquelle Dieu a soutenu Marie le Samedi Saint en l'absence de Jésus et dans la dispersion des disciples, est une force intérieure dont il n'est pas nécessaire d'être conscient, mais dont la présence et l'efficacité se mesurent à ses fruits, à la persévérance intérieure. A juste titre, Marie sait combien nous en avons besoin » (fin de citation).*

*Cette force, qui a animé Marie et les premiers disciples, c'est bien la force de l'Esprit Saint reçu à la Pentecôte et qui aujourd'hui encore nous invite à aller plus haut, plus loin sur le chemin de la Vie; Marie la vivante, Marie la nouvelle Eve, Marie qui nous entraîne... Oui, avec toi Marie je veux marcher, être à mon tour Pèlerin d'Espérance pour mes frères !*

Maria eta lehen dizipuluak sustatu zituen indar hori Mendekostez hartu Izpiritu Sainduaren indarra da, gaur ere Biziaren bidean gorago eta urrunago joaitera gomitatzen gaituena.

Maria biziaz betea, Maria Eba berria, Maria eramaiten gaituena... Bai zurekin, Maria, kurritu nahi dut, nik ere nere haurrideentzat Esperantza Beilari izan nahi dut ! Amen.